



## FITXA 1

Ametsa gauzatu zuen ..... jauna/andrea

### Aztarnak...



Ikertzaile ona zara? Bildu pertsonaiaren aztarnak

1. aztarna

.....

2. aztarna

.....

3. aztarna

.....

4. aztarna

.....

5. aztarna

.....



**Nola izena du?**

Aztarna horiek guztiak kontuan hartu eta pixka bat gehiago ikertu ondoren (liburutegian, Interneten...), badakizu nola izena duen?

Oraindik ez badakizu... sartu aztarna batzuen informazioa Interneteko bilatzaile batean ([Google](#) adibidez), eta seguru egon erantzuna aurkituko duzula. Zorte on!

**Pertsonaiaren izena:**





## FITXA 2

### Wangari Maathai, Afrikako Eratzun Berdea eratzeko ametsa gauzatu zuen emakumezkoa

Wangari Maathai ezagutuko dugu, eta 2004ko Bakearen Nobel saria zergatik irabazi zuen jakingo dugu.

Irakurri artikulu hauek:

**El Universal online. Berlín, Alemania  
2004ko urriaren 8a (ostirala)**

#### **Nor da Wangari Maathai?**

Bakearen Nobel saria irabazi duen Afrikako lehen emakumezkoa da Wangari Maathai.

Kenyako emakumezko hori mundu osoan aintzatetsi dute, ingurumena, demokrazia, giza eskubideak eta, bereziki, emakumezkoen eskubideak defendatzeagatik eta orokorrean pentsatu eta tokian jarduteagatik.

Nyerin (Kenya) jaio zen 1940an, eta unibertsitateko doktoretza (biologia) egin zuen Ekialdeko eta Erdialdeko Afrikako lehen emakumezkoa izan zen. Ingurumenaren alde borrokan igaro du Wangari Maathaik bizitzaren zati handi bat.

1977an, Eratzun Berdearen Mugimendua sortu zuen, Afrikako basoak berritzeko proiektu nagusi eta arrakastatsuen. Kenyan bakarrik 10 milioi zuhaitz baino gehiago landatu dituzte, Lurraren higadura geldiarazteko eta janaria prestatzeko egurra izateko.

Batez ere emakumezkoek parte hartzen dute Eratzun Berdearen proiektuan, eta jendea eta ingurumena babestea dute helburu. Ideia erraz bat du oinarri proiektuak: zuhaitzak landatuz gero, pertsonak hobetu egingo dute bizimodua, bai eta haien seme-alaben eta biloben bizimodua ere.

1986an, Sare Panafrikarra bultzatu zuen Maathairen mugimenduak, eta basoak berritzeko antzeko planak egin zituzten Afrikako 30 herrialdetan baino gehiagotan, besteak beste, Etiopian, Lesothon, Malawin, Tanzanian, Ugandan, Zimbabwen eta munduko beste zenbait tokitan.

Kenyan demokrazia izatearen alde borrokatu da Maathai modu baketsuan, gosegrebak eginez eta bidegabekeriak salatuz.

2003ko urtarrilean, Ingurumen, Natur Baliabide eta Basabizitza Saileko ministrorde izendatu zuen Mwai Kibaki Kenyako presidentek.

Sari asko eman dizkiote Maathairi, hartu dituen konpromisoengatik, besteak beste, hauek: Munduko Emakumezkoen saria Women Aid erakundeak (1989), Goldman Fundazio Ekologistaren saria (1991), Afrika saria Nazio Batuek (1991), Petra Kelly (2004) eta Bakearen Nobel saria (2004).

Iturria: *El Universal On Line*. Jatorrizko testuaren moldaketa

[http://www2.eluniversal.com.mx/pls/impreso/noticia.html?id\\_nota=249154&tabla=notas](http://www2.eluniversal.com.mx/pls/impreso/noticia.html?id_nota=249154&tabla=notas)



## FITXA 2

### Elkarrizketa Wangari Maathairi

(Web orri honetako elkarrizketaren moldaketa: )



#### Nola erreakzionatu zenuen Bakearen Nobel saria eman zizutela jakin zenuenean?

Hasieran, txundituta sentitu nintzen. Bakearen Nobel saria jasotzea bezalako ohorerik ez dago. Harritu egin nintzen, ez bainekien inor proiektuaren segimendua egiten ari zenik. Segituan konturatu nintzen saria niri eman bazidaten ere ez zela niretzat bakarrik; aitzitik, Eraztun Berdearen mugimenduan Kenya osoan 30 milioi zuhaitz baino gehiago landatu zituzten milaka emakumezkoentzat ere bazen, bai eta Kenyan demokrazia berreskuratzeko modu baketsuan lan egin zuten pertsona guztientzat ere. Nire ustez, Nobel sarien batzordeak mezu hau

zabaltu nahi zuen: ingurumena babesteak eta leheneratzeak bakerako bidea egiten laguntzen du, bakea lortzeko lana baita. Oso atsegina izan zen hori. Beti uste izan nuen gure lana ez zela zuhaitzak landatzea bakarrik. Aitzitik, jendea ingurumenaz arduratzea nahi genuen, baita jendea gobernatzen zuen sistemaz, beren bizitzaz eta etorkizunaz arduratzea ere. Nobel saria eman zidatela jakin orduko, zuhaitz bat landatu nuen Nyerin, nire sorterrian, ospatzeko.

Mendia inspirazio-iturri izan dut bizitza osoan, nire arbasoek bezala. Ingurumenaz arduratzen diren munduko pertsona guztiei gonbita egin nien haiek ere zuhaitz bana landatu zezaten.

#### Nola sortu zen Eraztun Berdearen mugimendua? Zer eragin izan du?

Beti maite izan dut natura, baina 60ko hamarkadan konturatu nintzen ingurumenaren eta pertsonen bizitzaren arteko loturaz. Landako emakumezkoekin izandako harremanari esker ohartu nintzen.

Etixerako eta janaria prestatzeko behar beste egur ez zutela esan zidaten, ez zutela edateko ur garbiko iturririk, ez eta jateko janari aski ere.

Konturatu nintzen premia horiek guztiak ingurumena narriatuta egotearen ondorioz sortu zirela. Zuhaitzak landatzea konponbide ona zen. Emakumezkoen gertuko beharrak ase zitzaizkien zuhaitzek, eta, aldi berean, ekosistema narriatuak leheneratzen lagunduko zuketuen. Emakumezkoekin lan egiten hasi nintzen; zuhaitz-mintegiak egin eta lursail pribatuetan landatu genituen. Hartara, landareen



truke dirua irabazten hasi ziren emakumezkoak, eta diru-sarrera txikiak izaten hasi ziren.

### **Zer esanahi du zuhaitzak Eraztun Berdearen mugimenduarentzat?**

Lurra sendatzen eta pobreziaren eta gosearen zikloa eteten laguntzen dute zuhaitzek.

Erregai-iturri ere badira, eta etxeak egiteko materiala, fruituak, animalientzako jatekoa, itzala eta edertasuna ere ematen dute. Garrantzi berezia dute zuhaitzek emakumezko afrikarrentzat; izan ere, inguruan zuhaitzik ez badute, urruti joan behar dute oinez janaria prestatzeko eta etxea berotzeko egurraren bila.

Bestalde, zuhaitzei eta basoei esker, lurzorua osasuntsu egoten da, lurra higatzea galarazten da, ibaiak eta errekek babesten dira –ur garbia izateko behar-beharrezko iturriak dira–, euria ekartzen dute aldizka, eta, hortaz, lehorterik ez izaten laguntzen dute. Horrez gain, bakearen ikur zoragarria da zuhaitza. Bizitza da, eta itxaropena ematen du. Afrikan, bake-lekuak dira zuhaitzak, hau da, jendea zuhaitzen adarpean biltzen da arazoak eta gatazkak konpontzeko. Horregatik eta beste hainbat arrazoiengatik, zuhaitzak landatzeak gatazkak izateko arriskua murriztu eta bakea sustatzeko aukerak areagotzen ditu. Eraztun Berdearen mugimenduak bakearen ikur gisa erabili ditu zuhaitzak Kenyan.

Zuhaitzak landatzeko zeremonia guztietan konpromiso hau onartzen eta aldarrikatzen zen:

*“Badakigu basamortuko kondizioak zabaltzeko arriskua dagoela Kenyan; lurra gaizki erabiltzearen, zuhaitzak bereizi gabe moztearen eta sasiak erretzearen ondorio dela basamortutzea, eta, beraz, lurzorua higatzen dutela elementuek; eta lehortea, desnutrizioa, gosetea eta heriotza dakartzatela horiek guztiek. Horrenbestez, lurra salbatzea erabaki dugu, eta basamortutze-prozesua geldiaraztea. Horretarako, zuhaitzak landatuko ditugu ahal den lekuan. Hitz horiek esanda, gure herrialdearekiko konpromiso hau hartzen dugu: oraingo eta geroko belaunaldiei guztion berezko eskubide diren ondasunak jasotzea galaraziko dieten ekintza eta elementu guztiak baztertzea.*



Interneteko web orri hauek gomendatzen dizkizuegu gehiago iker dezazuen.

### **Elkarrizketa:**

[http://www.unesco.org/courier/1999\\_12/sp/dires/txt1.htm](http://www.unesco.org/courier/1999_12/sp/dires/txt1.htm)

### **Nobel Sarien batzordeak argitaratutako prentsa-oharra:**

[http://solidaridad.universia.es/paz\\_conflictos/premio\\_nobel\\_paz\\_2004\\_wangari\\_maathai.htm](http://solidaridad.universia.es/paz_conflictos/premio_nobel_paz_2004_wangari_maathai.htm)

### **Nobel sariak emateko ekitaldiko argazkiak:**

<http://www.lanternbooks.com/slideshow/index.php?gal=oslo&slide=true&time=4&s=1&id=0>



## FITXA 3

### Wangari Maathai, Afrikako Eratzun Berdea eratzeko ametsa gauzatu zuen emakumezkoa

#### Informazio-posterra egingo dugu

Egin lauzpabost laguneko taldeak.

- Eskuratu kartoi mehe handi bat, arkatzak, errotuladoreak, guraizeak, egunkari-zatiak eta informazio-posterra irudiz hornitzeko era askotako materiala (aldizkari zaharrak, egunkariak, etab.).
- Posterra egin behar duzue argazkiak itsatsiz eta marrazkiak eginez. Beheko esaldiei erantzun eta amaiera eman behar diezue posterraren bidez.

**Nor da Wangari Maathai?**

.....

**Nork sortu zuen Eratzun Berdearen mugimendua?**

.....

**Zer egiten du Eratzun Berdearen mugimenduak?**

.....

**Zertan laguntzen du zuhaitz bat landatzeak?**

.....

**Zuhaitzak desagertzen badira, ...**

.....

**Munduko ura babesteko modu bat da ...**

.....

Bururatzin zaizkizuen beste gauza interesgarriak ere idatz ditzakezue posterrean

**Gogoan izan !**

- ✓ Posterrak ikusgarria eta argia izan behar du, ikaskideek irakurri ahal izateko.
- ✓ Antolatu zuen buruak posterra egiten denok parte har dezazuen!



## FITXA 4

### Wangari Maathai, Afrikako Eraztun Berdea eratzeko ametsa gauzatu zuen emakumezkoa



Orain ikertzaile aditua zara. Idatzi eskutitza zure lagun onenari, eta esan iezaiozu Wangari nor den eta zer ikasi duzun hari eta haren bizitzari buruz.

*Kaixeo .....*

*Wangari Maathai ezagutu dut, eta ...*



## FITXA 1


## Non zaude, ura?



Behatu eta irakurri arretaz beheko koadroa.

Lurraren azaleraren % 70 ura da.

Hala ere, uraren gehiengoa (% 97,5) ur gazia da. Gainerako uraren % 2,24 kasko polarretan, glaziarretan eta lurrazpiko ur sakonetan izoztutako ur geza da. Hortaz, munduko ur guztiaren % 0,26 bakarrik da erraz eskura daiteken kontsumitzeko ur geza, eta ibaietan, lakuetan eta sakonera gutxiko akuiferoetan dago.





## FITXA 2



### Esperimentatu gelan.

Honako hauek behar dituzu: litro bateko ur-botila bat, hiru ontzi (edalonziak edo azpilak), milimetro-neurgailu bat, pipeta edo probeta bat eta xiringa bat (ml).



- Hartu litro bateko ur-botila, eta pentsatu munduan dagoen ur guztia dela.
- Hartu 3 ontzi –gardenak badira, hobe-, eta idatzi kartel batean ontzi bakoitza zeri dagokion: **ITSASOKO URA, UR GEZA IZOZTUA ETA ESKURATU DAITEKEEN UR GEZA.**
- Banatu ura hiru ontzietan, lehen adierazi ditugun proportzioen arabera.
- Gogoratu, 1 litro=1.000 ml. Demagun ur-litro hori munduko uraren % 100 dela.





**FITXA 1**


# Non zaude, ura?

**Munduko herrialdetan dagoen ur gezaren kantitatea eta kokapena.**

Ur gezaren kantitatea oso desberdina da herrialde batetik bestera eta urtaroen arabera.

Behatu munduko mapa hau. Munduko herrialdeetan dagoen ur gezaren kantitatea erakusten du.

Herrialde bat zenbat eta urdinagoa izan, orduan eta ur geza gehiago dauka. Aldiz, ur geza gutxi duten herrialdeak laranja kolorez ageri dira.



Font: World Resources 2000-2001, People and Ecosystems: The Fraying Web of Life, World Resources Institute (WRI), Washington DC, 2000



Begiratu aurreko mapari, eta sailkatu herrialdeak bi taldetan: ur asko dutenak eta ur gutxi dutenak. Erabili herrialdeen izenak agertzen diren mapa bat, lana errazteko

Brasil / Mongolia / Estatu Batuak / Maroco / Israel / India / Somalia / Australia/ Aljeria/ España

Ur asko duten herrialdeak

Ur dezente duten herrialdeak

Ur gutxi duten herrialdeak

Ur oso gutxi duten herrialdeak



## FITXA 2

## Non zaude, ura? Ur-kontsumoa



Ur-kontsumoa kalkulatu dugu.  
Aukeratu zerrendako bi pertsonaia.

1. **Maria.Venezuela.** Bost senitarteko dira familian. Egunean 3 aldiz garbitzen ditu eskuak Mariak, dutxa azkarra hartzen du, bi aldiz garbitzen ditu hortzak iturria itxita, egunean 2 otordu prestatzen ditu familiarentzat, eta etxea ikuzten du. Horrez gain, barazetxoak ere ureztatzen du.
2. **Johan. AEB.** Bikotekidearekin bizi da. Egunero dutxatzen da Johan, 6 aldiz garbitzen ditu eskuak, 4 aldiz tiratzen dio komuneko kateari, behin jartzen du ontzi-garbigailua, iturria irekita moztu du bizarra, eta 3 aldiz garbitzen ditu hortzak iturria itxi gabe.
3. **Angelica. Australian** bizi da. Bost senitarteko dira. Egunean 3 otordu prestatzen ditu familiarentzat, arropa ikuzgailuan garbitzen du, egunean behin jartzen du ontzi-garbigailua, dutxatu egiten da, 5 aldiz tiratzen dio komuneko kateari eta zisterna husten du beti, eta bi aldiz garbitzen ditu hortzak iturria itxita.
4. **Kevin, Tanzanian bizi da.** 4 senitarteko dira. Baratze txikia egunean behin ureztatzen du, iturria itxita kentzen du bizarra, egunean behin prestatzen du janaria, arropa eskuz garbitzen du eta egunean hiru aldiz garbitzen ditu hortzak iturria itxita.
5. **Pau, Alemanian** bizi da beste bi senitartekorekin. Autoa garbitu du gaur, iturria itxita kendu du bizarra, eta dutxatu egin da. Egunean bi aldiz garbitzen ditu hortzak iturria itxita, 3 otordu prestatzen ditu, 3 aldiz tiratzen dio komuneko kateari, eta zisternaren zati bat husten du. Gainera, etxeko landareak ureztatzen ditu.

Orain, kalkulatu zure bi pertsonaiek zenbat ur gastatzen duten, hau da, egunean egiten dituzten jardueren arabera zenbat ur kontsumitzen duten. Kalkulatzen laguntzeko, erabili kontsumo-taula eta kontsumo-taula hutsa datuak sartzeko.

**Kontuz:** jarduera batzuk familia osoarenak dira (senitartekoen elkarrekin egiten dituzten jarduerak); beraz, banakako ur-kontsumoa kalkulatzeko, senitarteko-kopuruaz zatitu behar duzu jarduera horien kontsumo osoa.



<b>1. pertsonaia:</b> Izena:				
Jarduera	Zenbat aldiz?	Elkarrekin egiten dute senitartekoek?	Senitarteko- kopurua	Guztira
<b>GUZTIRA</b> litro/ egun				

<b>2. pertsonaia:</b> Izena:				
Jarduera	Zenbat aldiz?	Elkarrekin egiten dute senitartekoek?	Senitarteko- kopurua	Guztira
<b>GUZTIRA</b> litro/ egun				


Bestalde, zuk egunean zenbat ur kontsumitzen duzun kalkula dezakezu web orri honetan  
<http://tierra.rediris.es/hidrored/contenidos.html#AHORRO>



**TAULA LAGUNGARRIA**

GARBIGAILUA	60 - 100 litro	BIZARRA KENTZEA (iturria irekita)	40 - 75 litro
ETXEA GARBITZEA	15 - 40 litro	BIZARRA KENTZEA (iturria itxita)	3 litro
ONTZI-GARBIGAILUA	18 - 50 litro	AUTOA GARBITZEA (tutu malguarekin)	500 litro
JANARIA PRESTATZEA	6 - 8 litro	KOMUNEKO UR-ANDELA (zisterna hustuta)	10 - 15 litro
DUTXATZEA	35 (azkar) - 70 litro	KOMUNEKO UR-ANDELA (zisternaren zati bat hustuta)	6 litro
BAINATZEA	200 litro	NTZIAK ESKUZ GARBITZEA	100 litro
HORTZAK GARBITZEA (iturria irekita)	30 litro (3 minutu)	BARATZE TXIKIA UREZTATZEA	75 litro
HORTZAK GARBITZEA (iturria itxita)	1,5 litro	ETXEKO LANDAREAK UREZTATZEA	15 litro
ESKUAK GARBITZEA	1,5 litro	URA ERDATEA	1,5 litro

Begira zertan eta nola gastatzen den ura, kontinenteen arabera.





Aukeratu dituzun bi pertsonaietatik, nork gastatzen du ur gehien?



Jarduera asko edo gutxi egiten dituzte elkarrekin senitartekoek?



Zure ustez, ur gutxiago gasta dezakete pertsonaiek? Zergatik?



Zer sektoretan (industrian, etxean, nekazaritzan...) gastatzen da ur gehien Espainian?



Orain, idatzi arbelean pertsonaia guztiek kontsumitzen duten ur-kantitatea, eta adierazi, izenaren ondoan, zer herrialdetan bizi diren

Mariak	litro ur gastatzen ditu, eta	(e)n bizi da
Johanek	litro ur gastatzen ditu, eta	(e)n bizi da
Angelicak	litro ur gastatzen ditu, eta	(e)n bizi da
Kevisek	litro ur gastatzen ditu, eta	(e)n bizi da
Paulek	litro ur gastatzen ditu, eta	(e)n bizi da

Zuk zenbat ur kontsumitzen duzun jakin nahi duzu?

Internet bidez kalkula dezakezu, web orri honetan:

<http://tierra.rediris.es/hidrored/contenidos.html#AHORRO>

**Badakizu iturri bat tantaka ari bada egunean**

**30 litro xahutzen direla?**

**Hau da, urtean 10.000 litro ur baino gehiago!**



## FITXA 3

## Non zaude, ura?



Ikaskide guztien arteko eztabaida. Berriz behatuko dugu munduko herrialdeetan dagoen ur geza eta ur-erreserbak erakusten dituen mapa. Eztabaidatu eta eman arrazoiak beheko hipotesi hauetarako. Zer gertatuko litzateke...

### (eztabaidaren 1. zatia)

Kevin Kanadan biziko balitz?  
 Johan Marokon biziko balitz?  
 Angelica Israelen biziko balitz?  
 Paul Somalian biziko balitz?

### (eztabaidaren 2. zatia)

Zure ustez, Johanen bizimodua logikoa izango litzateke Marokon?  
 Eta Estatu Batuetan?

■ Ur gutxiago gasta daiteke. Ingurumena zaintzeko eta munduko pertsona guztiekin solidarioak izateko, ohiturak aldatu behar ditugu, adibidez, ura aurreztu behar dugu.



Zer esango zenieke Angelicari, Pauli eta Johani ur gutxiago eta modu eraginkorragoan gasta dezaten?

Hona hemen ideia batzuk!

**Ontzi-garbigailua eta arropa-garbigailua beti erabat betetzea, ura eta energia ez xahutzeko.**

**Ura barreiatzeko iturriak instalatzea ura aurrezteko.**

**Zisterna-erdia isurtzeko gailua jartzea komunean.**

**Beti iturria ixtea bizarra kentzean edo hortzak garbitzean.**

**Landareak euri-urarekin ureztatzea.**

**Autoa leku egokietan garbitzea.**

**Botila jartzea komuneko zisternan, ura aurrezteko.**



# Urarekin dugun konpromisoa...



## **Maila**

---

Lehen hezkuntzako hirugarren zikloa.

## **Iraupena**

---

Saio bat eta erdi.

## **Helburua**

---

Uraren erabilera jasangarria egiteko ekintza eta portaerak eta erantzukizun-balioei buruzko ekintza eta portaerak bultzatzea.

## **Laburpena**

---

Guztion artean erabakitzea ura aurrezteko eta behar bezala erabiltzeko eguneroko ekintzak, eta horma-irudi/manifestu bat egitea.







## Deskribapena

---

- **Hasiera**

Ariketari ekiteko, urari buruz egin ditugun ariketak errepatatuko ditugu eta uraren garrantzia gogoraraziko diegu ikasleei: ura baliabide mugatua da, ura aurreztu eta behar bezala erabili behar da... Hala, ingurumenak ez ezik guk ere irabazi egingo dugu.

- Bi modutan hasi gaitzke: batetik, ideia-jasa egin dezakete ikasleek taldean; bestetik, denbora-tartea utz diezaiekegu informazioa bil dezaten. Aukera batek bestea osatzen eta aberasten du.

**Idea-jasa.** Ideia-jasa egingo dugu taldean, ura aurrezteko eta behar bezala erabiltzeko eskolan, etxean, lorategian eta abarretan zer egin dezakegun jakiteko

🗑️ Arbelean etxea, eskola, lorategia edo hiria irudikatzen duen marrazkia egin dezakegu, eta horri buruz sortzen diren ideiak idatziko ditugu dagokion marrazkiaren azpian.

**Informazioa biltzea: Haurrek** hainbat modutara bil dezakete informazioa: senitartekoei edo lagunei elkarrizketa errazak eginez, informazio-liburuxken bidez, udaletxean galdetuz... eta Interneten. Bilaketa Internet bidez egitea aukeratzen baduzue, dokumentu honen amaieran dagoen ikasleen lan-fitxa erabil dezakezue adibide gisa..

- › Gelan ura aurrezteari buruzko liburuxkak, liburuak eta informazioa izatea gomendatzen dizuegu.
- › **Internet:** Bilaketa Interneten egin aurretik, egin zerrenda bat gako-hitzekin. Joan bilatzaile batera -adib., “google”, “yahoo”, etab.-, eta idatzi hautatu dituzuen gako-hitzak. Oharrak eskuz idaztea gomendatzen dizuegu.
- › Orriren bat inprimatu behar baduzue, hautatu tinta gutxi erabiltzeko aukera, beharrezkoa ez den gastua ez egiteko.





- **Erabaki dezagun**

Informazioa biltzeko eta ideia-jasa egiteko fasea amaitutakoan, aipatu ditugun ekintzetatik egunero zein egingo ditugun erabaki behar dugu denon artean.

🗑 Ekintzak denok adostuta erabakitzea da egokiena. Haatik, ikasle guztiak bat ez badatoz, auzia eztabaidatzea gomendatzen dugu, eta proposamenak bideragarriak ote diren denon artean adostea. Hala ere, adostasunik lortzen ez bada, bozkatuko egingo dira proposamenak.

- › Ez saiatu ekintza asko aukeratzen. Hobe da gutxi, hurbilekoak eta bete daitezkeenak izatea asko eta zehaztugabeak izatea baino.

- **Horma-irudia/manifestua**

Guztion artean aukeratutako ekintzekin horma-irudia/manifestua egingo dugu, eta hemendik aurrera egin beharreko ekintzak zehaztuko ditugu.

- › Ekintzaren laburpen gisa ikur edo marrazki bat egin dezakezue, eta azpian idatzi zer irudikatzen duen.
- › Horma-irudia egitean, kontuan hartu ikasgelako elementu erdiraunkorra izan daitekeela. Gutxienez hiruhileko batez egon behar luke ikasgelan. Horrela, beti gogoan izango dituzue uraren inguruan hartu ditugun konpromisoak, eta haiek betetzen ditugun egiaztatzeko erabil dezakezue.
- › Horma-irudia maila plastikoan eta sortzailean landu dezakezue, eta, horretarako, urari buruzko marrazkiak eta abar egin ditzakezue.
- › Interesgarria da gainerakoei (ikasgelak, eskola, familia...) jakinaraztea zer erabaki duzuen. Horretarako, ikastetxeko aldizkarian argitaratu daiteke, manifestua irakur daiteke egun seinlatu batean, etxeko pasilloan zintzilika daiteke eta abar.

- **Berrikuspena**

Oso garrantzitsua da konpromisoak berrikusteko edo ebaluatzeko uneak ezartzea hurrengo asteetarako, horrela, haiek betetzen diren, guztiok egiten dugun, ez betetzearen arrazoiak, zuzendu dezakegun eta abar ikusiko dugu.

- › Noizbehinka datuak idatzi eta bildu, zuen konpromisoen segimendua egiteko.
- › Hilabete geroago taldean berrikusteko gomendatzen dizuegu.



## Jarraibideak

Ariketa honetan, garrantzi handia du prozesua hurrekin batera egiteak. Izan ere, prozesu parte-hartzailea da eta haien proposamenak gauzatu behar dira.

Horren emaitza ekintzak egiteko konpromisoa hartzea izango da, ez erabakitzea bakarrik. Horregatik, garrantzitsua da ideiak hurrek berek ematea eta inguruan dituzten aukeretatik ateratzea ideia horiek.

Konpromisoak hartzeko, guztion artean erabaki eta ados jarri behar dugu, denok garrantzitsuak garela sentitu behar dugu. Egingo ditugun ekintzak kolektiboak badira, erantzukizunean hezten ariko gara.

## Hedapenak

Urari buruzko ekoikuskapenak ikastetxean.

Kontsumitzen den uraren, haren jatorriaren, eta abarren diagnosi-lana egitea da, zein puntutan gauden jakiteko, eta, handik abiatuta, urarekin dugun jarrera hobetzeko ekintza-plana sortzeko.

Oso lan interesgarria da. Hainbat ikastetxeren esperientziak daude.

Argibide gehiago:

<http://waste.ideal.es/aguaconsumo.htm>

## Esteka interesgarriak

Ikus ura aurrezteko mapa

<http://www.elretodelagua.com>

## Ura aurrezteko aholkuak

[http://www.unesco.org/science/waterday2000/100\\_ideas.htm](http://www.unesco.org/science/waterday2000/100_ideas.htm)

<http://www.elmundo.es/elmundo/2005/05/06/ciencia/1115393495.html>


<http://www.enbuenasmanos.com/articulos/muestra.asp?art=312>

<http://www.enbuenasmanos.com/articulos/muestra.asp?art=139>

<http://www.internatura.org/educa/agua10.html>

<http://www.asac.es/aigua/cast/8.htm>

<http://www.mujeractual.com/familia/temas/agua.html>



<http://www.terra.org/articulos/art00313.html>

[http://www.mediambient.bcn.es/cas/web/bcn\\_aigua\\_consells.htm](http://www.mediambient.bcn.es/cas/web/bcn_aigua_consells.htm)

**Kataluniako uraren agentzia. Aholku praktikoak**

[http://mediambient.gencat.net/aca/es//agencia/campanyes/raco/consells\\_practics\\_casa.jsp](http://mediambient.gencat.net/aca/es//agencia/campanyes/raco/consells_practics_casa.jsp)

**Ura aurrezteko alderdi praktikoak eta mekanismoak**

<http://www.ecodes.org/agua/ahorraragua.htm#hogar>

(katalanez) <http://www.xtec.es/centres/b7007300/fmarch/EstalviAigua.htm>



# Urarekin dugun konpromisoa...

## ESTEKAK

---

Informatzeko esteka interesgarriak dira hauek. Jarri gainean eta egin klik.

- ] [10 Consejos para ahorrar agua](#)
- ] [Decálogo para ahorrar agua - ciencia - elmundo.es](#)
- ] [Terra.org - Ahorrar agua](#)
- ] [CONSUMER.es EROSKI ::: Cómo ahorrar agua de forma inteligente](#)
- ] [http://www.enredate.org/enredate/reportajes/historico\\_de\\_reportajes/aguabeber/](http://www.enredate.org/enredate/reportajes/historico_de_reportajes/aguabeber/)
- ] [¿Cómo Puedo Ahorrar Agua?](#)
- ] [Como ahorrar respetando el medio ambiente](#)
- ] [100 ideas para ahorrar agua](#)

## Interneten bilaketa gehiago egiteko

---

- 1 Egin zerrenda bat gako-hitzeekin eta -esaldiekin, Interneten bilaketa egin aurretik.

Adibidez: ura aurreztu

2. Konektatu Internetera eta sartu bilatzaile batean, adibidez [www.google.es](http://www.google.es) o [www.yahoo.es](http://www.yahoo.es)
3. Idatzi hautatu duzuen gako-hitza hutsik dagoen eremuan, eta sakatu SARTU tekla Web orrien zerrenda azalduko zaizue.

Orriren bat inprimatu behar baduzue, hautatu tinta gutxi erabiltzeko aukera, beharrezkoa ez den gastua ez egiteko.